



BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

BERGARAKO TOKIKO 2030 AGENDA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

- I. SARRERA ETA TESTUINGURUA
 - II. KONTRATUAREN XEDEA
 - III. LANEN GARAPENA
 - VI. TXOSTENEN ETA DOKUMENTUEN AURKEZPENA
ZERBITZUAREN IRAUNALDIAN
 - V. GAUZATZE EPEA
 - VI. PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA
 - VII. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK
 - VIII. ADMINISTRAZIOARI LAGUNTZA
 - XI. HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK
 - X. ESKAINTZEN EDUKIA
 - XI. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK
- ERANSKINA: INGURUMENENKO JARDUNBIDE
EGOKIEN DEKALOGOA

I. SARRERA ETA TESTUINGURUA

Begarako Udalak, Debagoiena Udaltalde 21aren baitan, 2006an onartu zuen Tokiko Agenda 21aren (TA21) Ekintza Plana. Geroztik Udala pixkanaka gauzatzen joan da bertan jasotako ekintzak, 2019an Planaren ezarpen maila %71 delarik. Bestalde, azken urteotan Ekintza Planean jasotako ekintza zehatzak izan gabe, bere helburu eta lerro estrategikoekin zerikusia duten hainbat plangintza eta programa garatu ditu Udalak, hala nola: mugikortasun plana, energia plana, berdintasun plana, etab. 2006ko Ekintza Plana zaharkitua geratu dela ikusten da egungo errealitateari dagokionez. Udalak indarrean dituen plangintza estrategiko horiek bateratu eta udalerrri jasangarri batera bidean lan egiten jarraitzeko, Begarako Udaletik Ekintza Plan hori berrikusteko beharra ikusten da.

Beste aldetik 2015ean Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, giza garapena bultzatzea helburu duena, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak, Milurteko Garapen Helburuei berriro helduz, bultzada berri bat ematen dio Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) lortzeko ekimenari. Guztira 17 helburu dira, bost esferatan biltzen direlarik: pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea eta lankidetzak. GJH hauek lortzeko bidean 2030 Agenda tokian tokiko jasangarritasuna lortzeko tresna bezala sortu da, eta hala udalerrri maila da berau garatzeko egokiena. Agenda 21aren prozesua baliatuz, udalerriek 2030 Agendara bidean trantsizioa egitea da beraz oraingo erronka. Horretan laguntzeko IHOBek 2019an "*Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa*" argitaratu zuen

Testuinguru hau aintzat harturik, ikusten da Ekintza Plana berrikusteko modurik egokiena Begarako Tokiko 2030 Agenda garatzea dela, bertan jasotako ildoak, programak eta ekintzak Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJH) lerrokaturik egoteko, eta hartara Bergaran jasangarritasunaren bidean egiten den lanak Gipuzkoa, Euskadi, Europa zein nazioarte mailako agenda bera jarraitu dezan. Begarako 2030 Agenda garatzeko prozesuan, lanen esleipendunak erreferentzia bezala erabiliko du IHOBek argitaratutako aipatu gida.

Begarako egoeraren diagnostikoa egin ostean, Tokiko 2030 Agenda Ekintza Plan batean gauzatuko da, bertan jasota geratuko direlarik udalerrri mailan landuko diren GJHak, horien alde lan egiteko hartutako konpromisoak eta programatutako ekintzak. Tokiko Agenda 21 prozesuan egindakoa jarraiki, Tokiko 2030 Agenda osatzeko parte-hartzea ezinbestekoa izango da, barne zein kanpo mailan, denon artean definitzeko nolakoa den 2030 urterako nahi dugun herria.

II. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Begarako Tokiko 2030 Agenda idaztea izango da. Tokiko 2030 Agenda hau osatzeko egin beharreko lanak honakoak izango dira, gutxienez:

- Udalerriko ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren egoerari buruzko laburpen diagnostikoa egitea. 2006ko Ekintza Planarekin alderatuz diagnostikoan egon diren aldaketan balorazioa. Diagnostikoa GJHekin erlazionatu adierazleen bidez eta, diagnostiko horren arabera, Ekintza Planak landu beharko dituen lehentasunezko arloak ezartzea.
- Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Plana osatzea: udalerrri mailan landuko diren GJHak lehenetsi eta lehentasunezko jarduera esparruak identifikatu, eta horiek lortzeko proposamen bideragarri eta zehatzak jaso beharko ditu (programak eta ekintzak).

- Parte-hartze plana osatzea eta parte-hartze prozesuetan laguntza ematea, bai udal barneko partaidetza prozesuetan (teknikari eta politikoen artean), bai udaletik kanpokoetan (herritarren hainbat sektoreren artean).
- Planaren garapenean egin beharreko komunikazio eta informazio lanak egitea, bai herritarrei zuzendutakoak zein Udaletxe mailan.

Lehenago ezarri den bezala, kontratuaren xede den Bergarako Tokiko 2030 Agenda osatzeko lanak egiteko esleipendunak oinarri eta erreferentziatzat hartu beharko du *"Tokiko Agenda 2030. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa"* (IHOBE, 2019).

III. LANEN GARAPENA

Bergarako Tokiko 2030 Agenda osatzeko proiektua honako fase eta alderdietan garatuko da:

1. ZEHAZTEA ETA ABIAN JARTZEA
2. OINARRIZKO INFORMAZIOA BILTZEA ETA TXERTATZEA
3. LABURPEN DIAGNOSTIKOA OSATZEA
4. TOKIKO 2030 AGENDAREN ESTRATEGIA FORMULATZEA
5. TOKIKO 2030 AGENDAREN PLANA LANTZEA
6. TOKIKO 2030 AGENDAREN PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ESTRATEGIA DISEINATZEA
7. BARNEKO ETA KANPOKO PARTE-HARTZEA
8. PLANARI LOTUTAKO KOMUNIKAZIOA

Horietako fase bakoitzean esleipendunak honako lanak egin beharko ditu gutxienez:

III.1. ZEHAZTEA ETA ABIAN JARTZEA

- Lan programa osatzea: programa honek barne hartu beharko ditu aintzat hartu beharreko gaien lehenetsiak, baita udal barneko zein kanpoko parte-hartze eta komunikazio estrategiak.
- Udal barnean egun martxan dauden partaidetza mekanismoak aztertzea eta beharren arabera Tokiko 2030 Agenda modu eraginkorrean garatzeko birdiseinatzea.
- Egun herritarren partaidetzarako dauden mekanismoak aztertzea eta beharren arabera Tokiko 2030 Agenda modu eraginkorrean garatzeko birdiseinatzea.
- Bergarako Tokiko 2030 Agenda proiektuari lotuta erabiliko den esloganerako proposamena aurkeztea Bergarako Udalari eta, esleipendunak egoki ikusiko balu, eslogan horri lotutako logoa ere bai. Eslogan, izen edo esaldi honen helburua izango da Tokiko 2030 Agendaren proiektuan herritarren partaidetza lortzea, eta era berean Udalerri mailan jasangarritasunera bidean duen potentzialtasuna islatzea. Esleipendunak egindako proposamen edo proposamenak Udalarekin elkarlanean garatuko dira, eta azkenean hautatutako aukera izango da proiektu osoan zehar erabiliko dena, bereziki Planari lotutako komunikazio ekintzetan.

III.2. OINARRIZKO INFORMAZIOA BILTZEA ETA TXERTATZEA

- 2006ko Ekintza Planaren ebaluazioaren emaitzak eta tokiko jasangarritasunaren adierazleak biltzea eta aztertzea.

- Datu osagarriak eta informazio dokumentala biltzea.
- Udalerriari eragiten dioten beste plan batzuk eta udalerrian edo udalerriaz gaindi dauden beste hausnarketa-esparru batzuk ere biltzea.
- Udal teknikariek elkarriketak.

III.3. LABURPEN DIAGNOSTIKOA OSATZEA

Aurrez bildutako informazio kuantitatibo eta kualitatiboa oinarri hartuta, alderdi esanguratsuenak labur-labur jasotzen dituen diagnostiko dokumentu bat idatziko du esleipendunak. Diagnostiko honen helburu nagusia izango da udalerrri mailan ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari dagokionez dauden lehentasunezko arloak identifikatzea.

Diagnostikoaren ikuspuntuak, irismenak eta gutxieneko edukiak IHOBEn gidan ezarritakoarekin bat etorri beharko dute. Dokumentuak, gutxienez, gai hauei buruzko diagnostikoa egin beharko du:

A. INGURUMEN ARLOAK

- Lurraldea eta antolamendua
- Bioaniztasuna eta ingurumen naturala
- Paisaia
- Mugikortasuna eta garraioa
- Lurzoruak
- Ura
- Energia
- Hondakinak
- Klima aldaketa eta inpaktu orokorra
- Udalarenak ez diren erakundeen ingurumen kudeaketa

B. GIZARTE ARLOAK

- Biztanleria
- Ongizatea eta gizarteratzea
- Osasuna
- Etxebizitza
- Kultura
- Euskara
- Hezkuntza
- Berdintasuna
- Demografia

C. EKONOMIA ARLOAK

- Lan merkatua

- Garapen ekonomikoa

D. GOBERNANTZA

- Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa
- Sentsibilizazioa eta komunikazioa
- Herritarren parte-hartzea
- Koordinazioa
- Gardentasuna

Diagnostikoa egitearekin batera, esleipendunak fase honetan honako azterketa osagarria egin beharko du:

- GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEI (GJH) EGINDAKO EKARPENA: Bildutako informazioan oinarrituz, udal kudeaketaren arloetatik zer GJHri heltzen zaion aztertuko da, arlo bakoitzak zer GJH jorratzen duen zehaztuz. Udaleko sail desberdinen jarduera eta plangintza nabarmenenak hartu eta horiek zein GJH jorratzen dituzten jasoko da, orain arte udalerrri mailan GJHei egindako ekarpena ezagutzeko helburuarekin.

Gainera, esleipendunak Udal Ordezkariei zuzendutako diagnostikoaren LABURPEN EXEKUTIBO bat ere egin beharko du, diagnostikoaren alderdi nagusiekin.

III.4. TOKIKO 2030 AGENDAREN ESTRATEGIA FORMULATZEA

Urrats honek ahalbidetuko du udal estrategia bat izatea Bergarako Tokiko 2030 Agendarako. Fase honetan esleipendunak egin beharreko lanak honakoak izango dira:

- *Ikuspegia eta helburu estrategikoak definitzeko laguntza eskaintzea*: Esleipendunak laguntza tekniko eskainiko du Bergarako 2030 Agendaren ikuspegi eta xedek definitzeko fasean. Ikuspegi eta xede horiek bat egingo dute GJHekin, eta diagnostiko fasean ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari dagokionez identifikatuko lehentasunezko arloak aintzat harturik ezarriko dira. Udal Ordezkariek ikuspegi eta helburu estrategikoak definitu ahala, esleipendunaren ardura izango da haien formulazio eta terminologia lerrokatuta egotea 2030 Agendarekin.
- *Ekintza planaren eskemaren proposamena idaztea*: Ezarritako ikuspegi, GJH eta helburu estrategikoak oinarri harturik, esleipendunak ekintza planaren eskemaren proposamen bat idatziko du udalean aurkezteko. Eskema hori lehen abiapuntua izango da ondoren Ekintza Plan osoa garatzeko.
- *Udal teknikari eta ordezkariekin bileren antolakuntza eta dinamizazioa*: Esleipendunak fase honetan udal teknikari eta, hala badagokio, ordezkariekin egin beharreko bileren antolakuntzaren eta dinamizazioaren ardura izango du. Bilera horien helburua izango da, alde batetik Bergarako 2030 Agendaren ikuspegi, GJH eta helburu estrategikoak zehaztea; eta beste aldetik esleipendunak aurkezten duen ekintza planaren eskemaren proposamena eztabaidatu eta adostea.

III.5. TOKIKO 2030 AGENDAREN PLANA LANTZEA

Urrats honek ahalbidetuko du Ekintza Plan bat izatea Tokiko 2030 Agendarako, eta baita haren jarraipenerako adierazle sistema bat izatea ere. Fase honen baitan esleipendunak egin beharreko lanak honakoak izango dira:

- Ildo estrategikoak definitzeko laguntza teknikoa eskaintzea eta beren formulazioa GJHein lerrokatzea.
- Ezarritako ildo estrategikoak garatzeko jarduera programen proposamena prestatzea.
- *Jarduera programa bakoitzaren baitan jasotako ekintzen ezaugarriak finkatzea*: lan hauen zati batek udal teknikarien ekarpen eta parte-hartzea izango du. Ekintzen ezaugarriak finkatzeko honako alderdiak zehaztu beharko dira:
 - a) Ekintzaren izenburua
 - b) Deskribapen
 - c) Gauzatzeko/ezartzeko epea
 - d) Maiztasuna
 - e) Lehentasuna
 - f) Kostua
 - g) Erantzukizuna
 - h) Finantzaketa
 - i) Adierazleak
 - j) Ekintzak zer GJHri egiten dion ekarpen nagusia (GJH bakar bat asignatuz ekintza bakoitzari).

Garrantzitsua izango da deskribapenari, epeari, lehentasunari, kostuari eta erantzukizunari buruzko datuak betetzean udal langileen parte hartzea eta ekarpenak bermatuko dituen lanerako metodo bat izatea.

- *Garapen jasangarriaren udal adierazleak zehaztea*: Tokiko 2030 Agendaren Plana definituta dagoenean, esleipendunak Garapen Jasangarriaren udal adierazleen proposamena aurkeztuko du, horien bidez planaren jarraipen egoki bat egin ahal izateko, bai GJHena eta bai ekintza planifikatuta dituzten esku-hartze arloena. Adierazle hauek IHOBEk argitaratutako gidaren IV. Eranskinean "GJHei lotutako Garapen Jasangarriaren udal adierazleen zerrenda" bildutako 110 adierazleen artean aukeratu dira.
- *Ekintza Planaren programazioa egitea*: Planean aurreikusitako ekintzen lehentasun eta bideragarritasuna aintzat harturik, esleipendunak plana garatzeko programazioa osatuko du, epe motzera, ertainera eta luzera. Gainera, ahal den heinean, epe bakoitzerako programatutako ekintzak gauzatzeko aurrekontuaren zenbatekoa ere jasoko du programazio horrek.

Tokiko 2030 Agendaren Plana idazteaz gain, esleipendunak fase honetan Udal ordezkari zuzenduriko LABURPEN EXEKUTIBO bat osatu beharko du, ekintza planaren alderdi nagusiekin.

III.6. TOKIKO 2030 AGENDAREN PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAKETARAKO ESTRATEGIA DISEINATZEA

Tokiko 2030 Agendaren jarraipen eta ebaluaketarako estrategia diseinatuko da, horretarako adierazle sistema batean oinarrituz. Estrategia honen xedea izango da planaren ezarpen prozesua eta hartzen diren neurriek dituzten eraginak kontrolatzea. Zehatzago, jarraipen eta ebaluaketarako estrategiak honako helburuak izango ditu:

- Planaren jarraipen egoki bat eta ebaluaziorako prozesu bat ezartzea.
- Neurrien ezarpen maila nola ebaluatuko den eta helburuak nola lortuko diren zehaztea.
- Planaren kalitatea ebaluatzeko behar diren mekanismoak garatzea.
- Tokiko 2030 Agendak GJHei egiten dien ekarpena neurtzea.

Hala, esleipendunak honako alderdiak kontuan hartu beharko ditu jarraipen eta ebaluaziorako estrategia osatzean:

- *Planaren helburuekin lotuta dauden adierazleak*, ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko. Zentzu honetan, Tokiko 2030 Agendaren aginte koadro estrategikoa osatuko duten adierazleak ezarriko dira, aurreko fasean hautatutako garapen jasangarriaren adierazleen artean. Aginte koadro honen xedea izango da Tokiko 2030 Agendaren egoera orokorra begi-kolpe batez islatzea.
- *Tokiko 2030 Agendarekin udalerriak GJHei egiten dien ekarpena neurtzeko mekanismoak diseinatzea*: kontuan hartu behar da ekintzen ezaugarriak finkatzeko fasean ekintza bakoitzak zer GJHri ekarpena egiten dion zehaztuta geratuko denez, Ekintza Planaren informazioa modu honetan egituratuta geratuko litzatekeela, aipatu ekarpen honen ebaluazio eta jarraipenari begira:
 - GJHen araberrako plangintza: Ekintzak GJHei lotuta egongo direnez, Ekintza Plana osatzen denetik aztertu ahal izango da zer GJHren inguruan planifikatu diren ekintzak eta, hortaz, zein GJHri egin ahal izango zaion ekarpena, ekarpenaren ehunekoa jakiteaz gainera.
 - Planaren gauzatzea GJHen arabera: Planaren gauzapenaren aldizkako ebaluazioak informazio fidagarria emango du gauzatzen ari diren eta ez diren ekintzei buruz. Ekintza horiek GJHei lotuta egongo direnez, aztertu ahal izango da zein GJH jorratzen diren gehiago urte bakoitzean.
 - Garapen jasangarriaren adierazleak: Garapen Jasangarriaren Udal Adierazleen urteko kalkuluak (bereziki Agintze Koadro Estrategikoa osatzen dutenak) ahalbidetuko du Tokiko 2030 Agendaren aurrerapenak objektiboki aztertzea.
 - Udalerriak GJHei egiten dien ekarpena ebaluatzeko proposatzen den mekanismoak baliagarriak izan beharko dira borondatezko txostenak prestatzeko eta argitaratzeko, dela emaitzak jakinarazteko, dela Tokiko 2030 Agendak berak izan ditzakeen hobekuntza-arloak identifikatzeko.
- *Ekintza planaren jarraipena e-mugi bidez egin ahal izatek behar diren aurretiazko lanak gauzatzea*: esleipendunak plana e-mugi barruan sartzeko beharrezkoa den formatu bateragarria (Excel normalki) pasatuko du, ondoren Udalak plana e-mugi plataforman txertatu eta honen bidez urteroko jarraipena egin ahal izateko.

III.7. BARNEKO ETA KANPOKO PARTE-HARTZEA

Lanen esleipendunak lanen lehen fasean (1. Zehaztea eta abian jartzea) Tokiko 2030 Agendari lotutako barneko eta kanpoko parte-hartze plangintza bat osatu beharko du, lanen lehen fase horretan udaleko teknikari eta ordezkarien onespena jaso beharko duena.

Hala, esleipendunak gaur egun udalerrian martxan dauden parte-hartze mekanismoen azterketa bat egingo du lehenengo, eta azterketa hori oinarri harturik parte-hartze prozesu bat diseinatu eta proiektuaren prozesu osoan zehar garatu beharko du. Partaidetza honen helburua izango da

interesa duten taldeak prozesuan barneratzea. Parte-hartze plangintza honek honako alderdiak hartu beharko ditu kontuan:

- Parte hartzaileen eginkizun eta eskumenak argi definitzea
- Honako eragileen iritzia barneratzea:
 - Talde politikoak
 - Auzo-alkateak
 - Bergarako jarduera sozioekonomikoan interesekoak diren talde edo elkarteak
 - Bergaran ingurumenaren alde egiten duten talde edo elkarteak
 - Interesekoak izan daitezkeen bestelako elkarte edo taldeak
 - Udalaren Sail desberdinak
 - Elkarteen kide ez diren herritarrak
- Aipatu talde horien iritzia aintzat hartzea Tokiko 2030 Agenda garatzeko prozesu osoan zehar, eta bereziki:
 - Bergararen etorkizunari buruzko ikuspegi partekatu bat lortzeko
 - Planarekin lortu nahi diren xede eta helburuak zehazteko
 - Eraginkorrak izango diren ekintzak lantzeko

Kanpo parte-hartzeari dagokionez, proposamenean gutxienez bi saio (gutxienez) aurreikusi beharko dira prozesuak irauten duen bitartean herritarrek parte hartzeko: bat diagnostiko fasean eta beste bat ekintza plana garatzeko fasean. Esleipendunak bere gain hartuko ditu saio horiek antolatzen lagundu eta haiek dinamizatzeko lanak.

Barneko parte-hartzeari dagokionez, proposamenean gutxienez hiru lan-saio aurreikusi beharko dira udal teknikari eta ordezkariekin: diagnostiko fasean eta ekintza plana garatzeko fasean. Esleipendunak bere gain hartuko ditu saio horiek antolatzen lagundu eta haiek dinamizatzeko lanak.

III.8. PLANARI LOTUTAKO KOMUNIKAZIOA

Esleipendunak prozesuaren fase guztietan zehar garatuko den Komunikazio estrategia bat osatu beharko du. Horretaz gain lanen lehen fasean (3.1. Zehaztea eta abian jartzea) esleipendunak proposamena aurkeztuko dio Bergarako Udalari Tokiko 2030 Agenda proiektuari lotuta erabiliko den esloganerako eta, esleipendunak egoki ikusiko balu, eslogan horri lotutako logoa ere bai. Eslogan, izen edo esaldi honen helburua izango da Tokiko 2030 Agendaren proiektuan herritarren partaidetza lortzea, eta era berean Udalerri mailan jasagarritasunera bidean duen potentzialtasuna islatzea. Esleipendunak egindako proposamen edo proposamenak Udalarekin elkarlanean garatuko dira, eta azkenean hautatutako aukera izango da proiektu osoan zehar erabiliko dena, bereziki Planari lotutako komunikazio ekintzetan.

Komunikazio estrategia diseinatzeko garaian, honako motako ekintzak garatzea aztertu beharko da:

- Udalaren webgunearen eta sare sozialen bitartez komunikazio ekintzak egitea honako alderdien inguruan:
 - Agenda 2030a azaldu eta ezagutaraztea

- Planaren faseak
 - Bileren ondorio nagusiak
 - Planaren dokumentazioa
- Planaren eta berari lotutako jardueri buruzko prentsa-oharrak eta beste informazioa prestatzea.
 - Deialdiak, jarraipenak, aktak eta aurkezpenak egitea, baita plana egitearekin eta parte-hartzearekin zerikusia duten beste jarduerak ere.

IV. TXOSTENEN ETA DOKUMENTUEN AURKEZPENA ZERBITZUAREN IRAUNALDIAN

IV.1. LANEKO DOKUMENTUAK

Esleipendunak kontratuaren azken dokumentuez gain, barneko zein kanpoko parte-hartzeari lotuta sortzen den materiala, bai eta Udalak egokitzat jotzen duen beste zenbait dokumentazio teknikoa eman beharko du.

Paper-kontsumoa murrizteko, zerbitzuaren/proiektuaren iraunaldian sortutako laneko dokumentuak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira, posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bitartez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez) edo, bestela, CD, DVD edo antzeko euskarri batean, betiere birgrabagarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko. Aitzitik, kontratazio prozedurari dagozkion agiriak baldintza administratiboen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu beharko dira.

IV.2. AZKEN DOKUMENTUAK

Begarako Tokiko 2030 Agenda garatzeko prozesuaren emaitza gisa, esleipendunak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- I. Dokumentua: Laburpen diagnostikoa
- II. Dokumentua: Tokiko 2030 Agenda: Ekintza Plana
- III. Dokumentua: Jarraipen eta ebaluazio estrategia
- IV. Dokumentua: Parte-hartze plana eta komunikazio plana

Horrez gain, honakoak ere aurkeztuko dira:

- Diagnostikoaren LABURPEN EXEKUTIBOA, Udaleko ordezkariari zuzenduta
- Ekintza planaren LABURPEN EXEKUTIBOA, Udaleko ordezkariari zuzenduta

Esleipendunak aurkeztu beharreko I, II, III eta IV dokumentuak euskaraz egongo dira. Diagnostikoaren eta ekintza planaren laburpen exekutiboak euskaraz eta erdaraz aurkeztu beharko dira.

Kasu guztietan, bi kopia entregatu behar dira: kopia bat paperean eta bestea euskarri digitalean (Word eta PDF).

IV.3. KASU GUZTIETAN

Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada (azken dokumentuak) edo kontratugileak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.) esleipendunak hau egin behar du:

- Kontratugilearekin adostu dokumentuak inprimatu behar diren ala ez, ez badu kontratugileak zuzenean eskatu
- Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokitzuz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.
- %100 birziklatutako papera erabili (%65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienez %20koa duen paper birziklatu gabea.
- Agiri inprimatuak eskatzen badira, erabili behar diren paper birziklatuen eta/edo ez birziklatuen dokumentazioa aurkeztu (izena, marka, ezaugarri teknikoak eta ingurumen-ezaugarriak) kontratuaren hasieran, kontratugileak onar dezan. Kontratuaren iraunaldiak aldaketarik izanez gero, horien berri eman egin behar da, eta kontratugileak, onartu.
- Dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago daudela (hala komeni bada eta ulertzeko moduan dagoela bermatzen bada), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).

V. PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Udalak bertako langile bat izendatuko du proiektuaren zuzendaritza eramateko. Proiektuaren zuzendariaren zereginak honakoak izango dira:

- Tokiko 2030 Agenda garatzeko prozesuan parte hartzen duten udaleko teknikari eta kargu politikoak koordinatzea
- Udalaren barneko informazioa biltzea
- Prozesuan sortzen diren dokumentuak berrikustea eta baliozkotzea
- Ekintzen ezaugarriak finkatzeko fasean udal-teknikariekin koordinatuta aritzea, fase horretan parte hartzen dutela bermatzeko.
- Aholkularitza teknikoarentzako erreferentziako pertsona eta solaskidea izatea
- Proiektuko faseen segimendua egitea
- e-mugi aplikazioa prozesuaren hainbat fasetan kudeatu eta erabiltzea
- Udaleko Euskara Zerbitzuaren bitartez kontratuaren hizkuntzaren kalitatea bermatzea: prozesu osoan zehar erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak direla bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko Proiektuaren Zuzendariak Udaleko Euskara Zerbitzura bideratuko ditu esleipendunak aurkezten dituen dokumentuen lehen zirriborroak, euskararen kalitateari dagokionez oniritzia eman dezaten.

VI. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Esleipendunak kontratu hau ahalik eta bermerik handienez gauzatzeko egokia eta nahikoa den lantaldea izendatu beharko du; lantalde hau osatzen duten teknikariek Tokiko 2030 Agendak lantzen dituen arlo desberdinen inguruko ezagutza zein eskarmentua bildu beharko dute. Hala, goi mailako titulazioa duten diziplina anitzeko teknikariek osatu beharko dute.

Lantaldeko kideen artetik proiektuaren burua izendatuko dute: berau izango da proiektua egoki gauzatzearen arduradun nagusia eta proiektuaren ordezkari zein solaskide nagusia Bergarako Udalaren aurrean. Bere ardura izango da proiektua koordinatzea, kudeatzea, gainbegiratzea, lantaldearen barne antolakuntza egitea eta adostutako epeak betetzen direla bermatzea.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, bai proiektuaren buruak bai barneko zein kanpoko **parte-hartze prozesuetan parte hartuko duten teknikariek euskaraz Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun-maila** izan beharko dute.

VII. ADMINISTRAZIOARI LAGUNTZA

Esleipendunak Bergarako Udalari beste gastu gehigarririk gabe, lanaren garapenerako eta helburuak betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen zerbitzuak eskainiko dizkio, adibidez, azalpen bileretarako joatea eta inplikaturako eragileak informatzea.

VIII. HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK

VIII.1. ZERBITZUA EMANGO DUTEN LANGILEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA

Begarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte euskarazko gaitasunei dagokienez. Hori dela-eta, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, jardueran parte hartuko duten langileek C1 gaitasun maila (Europako Erreferentzia Markoaren arabera) egiaztatu beharko dute euskarari dagokionez (Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietako 12.5 atalean jasotzen den dokumentazioarekin batera).

VIII.2. BERGARAKO UDALAREKIKO HARREMANAK, BAI TEKNIKARIEKIN ETA ORDEZKARI POLITIKOekin

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Udalarekin izango dituen ahozko zein idatzizko harreman administratiboak euskaraz izango dira. Eta udal barneko partaidetza prozesuetan ere partaide denak euskaldunak badira, dena euskaraz egingo da.

Bestalde, esleipendunak aurkeztu beharreko I, II, III eta IV dokumentuak euskaraz egongo dira. Diagnostikoaren eta ekintza planaren laburpen exekutiboak euskaraz eta erdaraz aurkeztu beharko dira.

VIII.3. ENPRESAK HERRITARREKIN IZANGO DITUEN HARREMANETARAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Kanpoko parte-hartze prozesuan, banakako herritarrekin zein entitateekin dituzten ahozko eta idatzizko komunikazioak (elkarrizketak, bilerak, inkestak, mezuak, etab.) euskaraz izango dira nagusiki; herritarrekiko harremanetarako udal planean ezarritako zehaztapenen arabera, betiere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.



Hedapen orokorreko komunikazioak ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik eta bai neurriaren aldetik ere.

VIII.4. HIZKUNTZAREN KALITATEA BERMATZEA

Prozesu osoan zehar erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak direla bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko Proiektuaren Zuzendariak Udaleko Euskara Zerbitzura bideratuko ditu esleipendunak aurkezten dituen dokumentuen lehen zirriborroak, euskararen kalitateari dagokionez oniritzia eman dezaten.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadin Bergarako Tokiko 2030 Agenda egiteko zerbitzua kontratatzeko prezkripzio teknikoaren plegu hau 2020ko martxoaren 5ean emandako dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, 2020ko martxoaren 5a





PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ELABORACIÓN DE LA AGENDA 2030 LOCAL DE BERGARA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

- I. INTRODUCCIÓN Y CONTEXTO**
- II. OBJETO DEL CONTRATO**
- III. DESARROLLO DE LOS TRABAJOS**
- VI. PRESENTACIÓN DE INFORMES Y DOCUMENTOS DURANTE EL SERVICIO**
- V. PLAZO DE EJECUCIÓN**
- VI. DIRECCIÓN DEL PROYECTO**
- VII. MEDIOS PERSONALES Y MEDIOS MATERIALES**
- VIII. AYUDA A LA ADMINISTRACIÓN**
- XI. REQUISITOS LINGÜÍSTICOS**
- X. CONTENIDO DE LAS OFERTAS**
- XI. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS OFERTAS**
- ANEXO: DECÁLOGO DE BUENAS PRÁCTICAS AMBIENTALES**

I. INTRODUCCIÓN Y CONTEXTO

El Ayuntamiento de Bergara, dentro del Grupo de Trabajo Udaltalde 21 Debagoiena, aprobó en 2006 el Plan de Acción de la Agenda Local 21 (AL21). Posteriormente, el ayuntamiento ha ido materializando paulatinamente las acciones recogidas en dicho plan, habiéndose logrado en 2019 un grado de implantación del plan del 71 %. Por otro lado, en los últimos años el ayuntamiento ha desarrollado una serie de planes y programas que, aunque no han sido recogidos específicamente en el Plan de Acción, sí que están relacionados con sus fines y líneas estratégicas; como, por ejemplo, el plan de movilidad, el plan de energía, el plan de igualdad, etc. En vista de que el Plan de Acción de 2006 ha quedado obsoleto respecto a la realidad actual, a fin de unificar esos planes estratégicos que el ayuntamiento tiene vigentes y de cara a seguir trabajando en la consecución de un municipio sostenible, desde el Ayuntamiento de Bergara se considera necesario proceder a la revisión del Plan de Acción.

Por otro lado, en 2015 la Asamblea General de Naciones Unidas aprobó la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible, con el objetivo de promover el desarrollo de la humanidad en las áreas de sociedad, economía y medio ambiente. La Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible, retoma los Objetivos de Desarrollo del Milenio y da un nuevo impulso al compromiso para la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS). En total son 17 objetivos, que alcanzan a cinco esferas: personas, planeta, prosperidad, paz y partenariado. En aras a la consecución de dichos ODS, la Agenda 2030 Local se configura como una herramienta para lograr la sostenibilidad local, por lo que la escala óptima para su desarrollo resulta la local. Valiéndose del proceso de la Agenda Local 21, el reto que afrontan los municipios ahora consiste en realizar la transición hacia la Agenda 2030. Para ayudar en este proceso IHOBE publicó en 2019 *“Agenda 2030 Local. Cómo abordar los Objetivos de Desarrollo Sostenible desde el ámbito local. Guía práctica”*.

Dentro de este contexto, se considera que para la revisión del Plan de Acción lo más adecuado es desarrollar la Agenda 2030 Local de Bergara, a fin de que las líneas, programas y acciones recogidas en ella sigan la senda de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y así el trabajo hacia la sostenibilidad que se realice en Bergara dé continuidad a la misma agenda a nivel de Gipuzkoa, de Euskadi, de Europa e internacional. Para el proceso de desarrollo de la Agenda 2030 de Bergara, la adjudicataria de los trabajos deberá utilizar como referencia la citada guía publicada por IHOBE.

